

## **KONTROL MOZIOA**

### **DONOSTIAKO AUZOETAKO JAIK BALIOAN JARRI ETA LAGUNTZEKO BITARTEKOEI BURUZKOA**

Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko apirileko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## **JUSTIFIKAZIOA**

Festa oso gauza serioa da. Nekez aurkituko dugu ospakizunik ez duen gizarterik, ez orain, ez historian zehar. Kolektiboki adierazitako pozek beste edozein ideia, sinbolo edo diskurtsok baino askoz gehiago kohesionatzen dute talde bat. Alde horretatik, jaia da alaitasun kolektiboa modu antolatuan adierazteko bitarteko nagusia. Donostian, adibide gorena San Sebastian eguna da, baina akats handia litzateke auzoetako jaien kohesiorako gaitasuna gutxiestea.

Norbanako guztiek, gutako bakoitzak dugu talde batekin identifikatzeko beharra, eta horrek, ohikoan, gertuen dugun eremuarekin harremanetan jartzen gaitu, auzoarekin alegia. Bada, auzoetako jaiak baino hoberik ez dago bizilagunen arteko harremanak sustatu eta tokikotasuna indartzeko. Izan ere, festek identitate- eta kidesun-osagai sendoa dute. Festak afektibitatez betetako gertakariak dira. Norbanakoa kolektibora hurbiltzen dute eta prozesu honetan askotariko sentazio eta emozioak nahasten dira, intentsitate handikoak,

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

eta hauen bitartez eraikitzen ditugu afektibitatezko harremanak, hots, identitatezko atxikimenduak.

Donostian auzo-jai asko eta askotarikoak ditugu, auzoak adina eta gehiago, eta badakigu ez dela erraza auzoetatik datozen behar guztiei erantzutea. Hala ere, badira urtero, behin eta berriro errepikatzen diren keak. Neguko jaiak igarota, hainbat auzotako jai batzordek ospakizunak antolatzeko izandako zailtasunen berri izan genuen, batez ere udal sail ezberdinen arteko koordinazioari lotutakoak, nahiz eta auzoko jaiak antolatzeko udalak eskainitako baliabideen ingurukoak ere baziren. Apirileko Pertsonentzako Zerbitzu Batzordean horri buruz galdetuta, zinegotzi delegatuak Donostia Festak atalak eskaintzen dituen zerbitzuen azalpen zehatza eman zuen, bai baliabide eta materialena, bai bitartekaritza eta koordinazioarena.

Argazki hori, ordea, ez dator bat auzoetako jai batzordeek helarazten diguten errealitatearekin. Uda gainean dugu, eta horrekin batera ospakizun ugari, eta kezkatzen gaitu batzordean azaldutako egoerak ugaritzea.

Auzoetako jaiak tokian tokiko komunitateari eta hiria berari egiten dioten ekarpena aintzat hartuta, Donostiako Udalak hauen bideragarritasuna ziurtatzeko bitartekoak jarri beharko lituzke, artean prozedurak erraztuz. Gainera, jaiak gizarte-harremanak indartzen dituzte eta beti izango da onuragarria gizarte zibila mugiaraztea eta ilusionatzea. Beraz, ekinbide publikoaren helburua, jaiaren bidez donostiar guztientzako harremanetarako guneak sortzea eta sustatzea izan beharko luke.

Zinegotzi ordezkaria prest agertu zen auzoetatik heldu daitezkeen hobekuntza-proposamenak entzuteko, are gehiago, "arazoak non dauden aztertze" lanketa bat egiteko aukera mahai gainean jarri zuen.

Horregatik guztirengatik, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA:**

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Donostia Festak atalaren bidez, maiatza eta ekaina bitartean auzoetako jai-batzordeekin bildu dadila, banaka edo taldean, auzoetan jaiak antolatzeko dituzten balizko arazoak aztertu eta konponbideak adosteko.

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, auzoetako jaien antolaketa erraztu eta laguntzeko, Donostia Festak atalak eskaintzen dituen zerbitzuak eguneratu eta auzoetako nahiz hiriko jai-batzordeen eskura jar ditzala.

3.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, jai-batzordeekin bildu ostean hauen beharrek hala adierazi ezker, auzoetako jaiak antolatu eta ospatzeko udal baliabide gehiago eskaini ditzala.

Donostian, 2024ko apirilaren 19an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga

EH Bildu udal taldeko zinegotzia